

Jardueren Koadernoak Joko Arduratsua



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Joko Arduratsua

Kaizo, Andoni eta Edurne gara eta une atsegin bat igaro nahi dugu jolastuz eta modu arduratsuan jolasteko moduz pentsatuz.

Jolasari esker, haurrok munduarekin kontaktuan izatea, esperientzia plazerzko eta atseginak izatea, eta beste haur batzuekin harremanetan izatea erdiesten dugu. Jolastea ikertzea, sortzea, ezagutzea eta gozatzea da.

Kontuan hartu zein diren zuretzat egokiak diren jolasak, eta badakizu adinez teikikook ezin dugula ausazko jokotetan aritu.

"Adinez txikikoak,..... ezingo dira horietan jardun (ausazko jokoak), ezin dira saridun makinetan ibili, eta ezin dute inolako apustuetan parte hartu..." (Euskal autonomia erkidegoan jokoak arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea)

Posta elektronikoa



Markatu, zure ustez, zabaldu beharko zenituzkeen posta elektronikoak.

Igortzailea	Gaia
<input type="checkbox"/> Miren	Andonik esan dit bihar liburua eramateko berari.
<input type="checkbox"/> Pepe Gomez	GARRANTZITSUA! IRAKURRI MEZU HAU ORAIN!
<input type="checkbox"/> Lourdes	Larunbatean egindako txangoaren argazkiak.
<input type="checkbox"/> Aintzane A.	Batu klub onenean: BABU KLUBA.
<input type="checkbox"/> Royal apustuak	Egin zure lehen apustua doan!
<input type="checkbox"/> Jeni Lopez	Zure bizitza betiko aldatuko da.
<input type="checkbox"/> Garbiñe	Matematikako etxeko lanak.
<input type="checkbox"/> Irati	(gairik gabea).
<input type="checkbox"/> Marivi dendak	Etorri eta opari bat izango duzu.
<input type="checkbox"/> Surf webgunea	Irabazi dirua nabigatu hutsarekin.
<input type="checkbox"/> Margari lehengusina	Asturiaseko oporraldien argazkiak.
<input type="checkbox"/> Mikel	Konektatuko zara gaur arratsaldez?.
<input type="checkbox"/> Royal Casino	Zorionak! 200€ irabazi dituzu.
<input type="checkbox"/> Ikmjrsawtlm	JRMTMSKITSLANTA.
<input type="checkbox"/> Andoni	Larunbatean, igerilekura.





Istripua izandako martetarra

Gaur batez, trikua zerura beha zegoen bere teleskopioarekin, ilargirantz zihoan espazio-ontzi bat ikustea iruditu zitzaionean. Enfokatzea lortu zuenean, istripua izan eta ilargian lur hartu zuen martetar gizajo baten ontzia zela ikusi zuen, eta ezingo zatekeen bertatik atera laguntzarik gabe.

Trikua ohartu zen, ziurrenera, berak bakarrik ikusi zuela gertatutakoa. Horrenbestez, hura handik ateratzen ahaleginduko zela erabaki zuen, eta hainbat animalia batu zituen laguntzeko. Ezer bururatzen ez zitzaenez, bati eta besteari deika hasi ziren eta, azkenean, basoko animalia ia guztiak elkartu ziren.

Orduan, bata bestearen gainean jarrita mendi garai bat egitea otu zitzaien, ilargira arte helduko zena. Oso zaila izan zen, eta guztiek hatzen bat begian sartuta, belarria zanpatuta eta buruan hamaika kolpe hartuta amaitu zuten. Hala ere, azkenik, ilargira arte iritsi eta martetarra salbatzea lortu zuten. Zoritxarrez, animalien dorre handitik jaisten ari zirela, hartzak ezin izan zion doministiku egiteari eutsi, izan ere, ilargiko hautsak alergia ematen zion, eta dorre osoa gottik behera amildu zen, ulu, marru eta animalien bestelako soinuen artean.

Zalaparta hori ikusita, animaliak alde guztietan minbera zirela, martetar-rak haserretu egingo zitzaizkiola pentsatu zuen, guztia bere erruz gertatu baitzen. Baina, alderantzizkoa gertatu zen: erorikotik altxatzen hasi ahala, animalia guztiak jauzika eta txaloka hasi ziren pozez, guztien arten horren eginkizun zaila lortu izanaren zorionez, eta egun osoan zehar festa handi bat ospatu zuten elkarrekin.

Martetarrak guztia apuntatu zuen eta, bere planetara itzuli zenean, aho zabalik utzi zituen bertakoak gertatutakoaren berri eman zuenean. Horrela erakutsi zieten animalia xume eta borondatetsu haiek martetarrei talde-lanak eta zoriontsu izateak zer-nolako garrantzia duten. Ordudanik, ez dute bidaiari bakar batentzako ontzirik egiten. Aitzitik, taldean joaten dira beti, behar denean batak besteari laguntzeko eta lan egiteko prest.

1. Pertsona bat bakarrik ikusten baduzu, laguntzera joaten zara?

2. Zerbait bakarka ezin duzula egin uste duzunean, lagunei laguntza eskatzen diezu?





Hizki-zopa

Bilatu hitzok.

DIBERTSIOA-ZORIA
APUSTUA-JOLASA
ZORTEA-EGINAHALA
IRRIBARREA-LAGUNAK

I	O	Q	W	Y	B	G	J	M	L
R	X	C	V	A	M	S	D	G	E
R	U	Y	T	P	V	I	G	Z	H
I	C	U	K	U	B	J	L	E	N
B	O	O	L	S	H	U	Z	G	I
A	O	I	S	T	R	E	B	I	D
R	Z	P	Z	U	E	D	O	N	O
R	E	F	A	A	I	J	B	A	G
E	Z	D	E	L	P	O	A	H	P
A	R	H	T	Y	O	L	M	A	A
Ñ	O	U	R	X	O	A	Y	L	S
Q	I	P	O	U	R	S	H	A	C
P	F	Z	Z	E	G	A	U	B	A
W	T	M	J	H	Z	O	R	I	A
T	E	K	A	N	U	G	A	L	Z



Esaldiak

Esaldi hauek osatzeko hautatu egokiak iruditzen zaizkizun hitzak, eskuineko zutabetik. Ondoren, pentsatu zein mezu ematen duen esaldiak eta aipatu gurasoei eta, are, zure irakasleei.

- _____ aurretik.
- Jolas gustagarriena _____-ekin egiten dudana da.
- Pentsatu _____ iruditzen zaizuna egitea.
- _____ ez egin gauzak besteek egiten dituztelako.
- Adinez txikiko pertsonak _____ jokatu behar ausazko edota diru-jokoetan.
- Nahi duguna lortzeko bide _____ da _____
- Jolasean galdu edo irabazteak ez du axola, garrantzitsuena _____ da.
- Edozer _____ daiteke _____ eta _____ jarduten denean.
- Arazoak _____ eta akatsak zuzentzeko bide onena _____ da.



Sekula
Egokiena
Zuzena
Lagun
Konpondu
Lor
Eginahalaz
Pentsatu
Laburrena
Pozik
Parte hartzea
Elkarrizketa
Jardun
Ez
Dute

Koloreztatu

Gozatu irudi hau koloreztatzen.





Hitzak lotu

Lotu, marra bat erabiliz, hitz bakoitza bere definizioarekin. Zalantzarik izanez gero, eskatu laguntza gurasoei edo irakasleei.

- Jolasa
 - Zaletasuna
 - Trebetasun-jokoa
 - Auto-kontrola
 - Ausazko jokoa
 - Mendekotasuna
 - Zoria
-
- Zortearen, kasualitatearen, baitan dagoen gertakizuna, gure alde suerta dadin deus egiteko aukerarik ez dugularik.
-
- Araututako aisialdi-ekintza, irabazi edo galdu egiten dena. Gozatzeko, entretenezko, ikasteko, lagunak egiteko edota trebetasunak garatzeko egiten ditugun jarduerak.
-
- Gure jokabide eta portaerak kontrola galdu gabe gidatzeko gaitasuna.
-
- Gustatzen zaigun zerbait egitea, arazorik eragin gabe.
-
- "Irabaztea edo galtzea, asmatzea edo ez asmatzea" helburu duen jokoa, emaitza zortearen edo zoriaren baitan egonik, ez gure trebetasunaren baitan.
-
- Gure adimenak, indarrak edo entrenamenduak baldintzatutako emaitza duen jokoa.
-
- Beharrak eraginda hartutako jokabidea, eten edo kontrolatu ezin duguna, menderatu egiten gaituena, ondorio txarrak ekarri arren.

